

Nafarroako Kultur Mezenasgoaren Foru Legeak zerga-onura garrantzitsuak eskaintzen dizkie gizarte-interestzat hartzen diren eta aitortzen diren proiektu kulturalak eta artistikoak babesten dituzten enpresei eta partikularrei.

Nafarroako Gobernuak MECNA zigiluarekin aitortzen du kultura sustatzeko eta finantzatzeko herritarrek, enpresariak eta gizarteak adierazitako konpromisoa.

INFORMAZIOA

848 42 46 00

culturanavarra.es/eu/mezenasgoa

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

**Egin kultura,
Egin zaituz MEZENAS**

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

KULTURA
zure baitan dago


mecna
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Zergatik izan MECENAS?

- Kulturarekin **GIZARTE-KONPROMISOA.**
- Kultura-proiektuaren **IKUSPEGI PARTEKATUA.**
- Kultura-mezenasgoak dituen **ZERGA-ONURAK.**

Nori bidera diezazkiokezun zure ekarpenak

MECNA zigilua duten erakunde eta artista guztiei. culturanavarra.es/eu/mekna-proiektuak

Nola lagun dezakezun MECNA proiektuak garatzen

Nafarroako kultura-garapena laguntzeko hiru bide daude:

- **DOHAINTZA:** diru-, ondasun- edo eskubide-ekarpenak edo zerbitzuak doan ematea.
- **ERABILERA-MAILEGUAK:** kultura-intereseko ondasunak, jarduerak gauzatzeko lokalak, kalitatezko artelanak eta antzekoak doan eta aldi baterako lagatzea.
- **LANKIDETZA-HITZARMENAK:** ekarpena egiten eta jasotzen dutenek parte-hartzea zabaltzeko konpromisoa hartzea, laguntzaren truke.

MEZENAS izateak dituen zerga-abantailak

Partikularrek

PFEZ kuotan kenkaria: %80 ekarpeneko lehen 150 eurotan eta %40 gainerakoan.

Adibidez:

	Zenbatekoa	→	Zenbatekoaren kenkaria
Dohaintza	50€	→	40€
Dohaintza	150€	→	120€
Dohaintza	500€	→	260€
Dohaintza	1.000€	→	460€

150 euroko mugak subjektu pasibo gisa operatuko du eta zerga-aldi bakoitzean. Kenkarien oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru-legearen 64.1 artikuluan aipatzen den mugaren ondorioetarako kontaktuko da.

Enpresek

Ekarpenaren zenbatekoak zerga-oinarria gutxitzen du, gastu kengarritzat jotzen baita eta, gainera, kuota likidoa %30 murrizten da lehen 300 eurotan eta %20 gainerakoan.

Adibidez:

% 23ko zerga-tasa aplikatzen zaion enpresa txiki batek **3.000 euro bideratzen ditu Mecna proiektu batera.** Sozietateen gaineko Zerga-aitorpenean ustiapen-kontu hau aurkeztuko du:

DIRU-SARRERAK	GASTUAK
Salmenta edo fakturazioa: 300.000€	Lansariak eta soldatak: 80.000€
Beste sarrera batzuk: 30.000€	Erosketak: 70.000€
Guztira: 330.000€	Askotariko gastuak: 5.000€
	Mezenasgoa sartzen du: 3.000€ (Gastu kengarria, ez du % 23 ordaintzen)
	Guztira: 155.000€

ZERGA-OINARRIA

$$330.000€ - 155.000€ = 175.000€$$

Zerga-tasa: %23

% 23KO ZERGA-AURREZKIA 3.000€-TAN:

690€

KUOTA OSOA

40.250€

3.000€-KO DOHAINTZAGATIKO KUOTA-KENKARIAK:

Lehen 300€-tan %30 kenduko da:	90€
Gainerako 2.700€-tan %20 kenduko da:	540€

ORDAINDU BEHARREKO KUOTA

39.620€

$$3.000€\text{-ko ekarpena egiteagatik zerga-aurrezkia: } 1.320€$$
$$(3.000 \times 23\% + 300 \times 30\% + 2.700 \times 20\% = 690 + 90 + 540)$$

* Aplikatu daitezkeen zerga-onurak Nafarroako Kultur Mezenasgoaren 8/2014 Foru Legearen 17. artikuluan xedatzen diren mugen mendeakoak dira.

